



Busturiko
Udala



Akta

TOKIKO GOBERNU BATZORDEA

JUNTA DE GOBIERNO LOCAL

TOKIA / LUGAR: Busturiko Udaletxea
EGUNA / FECHA: 16/9/2015
HASIERA / INICIO: 20:45
AMAIERA / FINAL: 21:00

BERTARATUAK / ASISTENTES:
ALKATEA/ALCALDE
Aitor Aretxaga Telletxea (EAJ-PNV)

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES:
Miren Idoia Etxebarria Otazua (EAJ-PNV)
Andoni Elorrieta Arronategi (EH BILDU)
Jon Ander Zulueta Andicochea (BIT)

IDAZKARI OROKORRA / SECRETARIO GENERAL
V́ctor-Martín Amparan Álvarez

IZAERA / NATURALEZA: Ohikoa / Ordinaria
DEIALDIA / CONVOCATORIA: Lehena / Primera



Busturiko Udaletxean, adierazitako egun eta orduan, Alkate jauna buru zela, Batzorde Informatzailea bildu zen ohiko saioa egiteko lehen deialdian. Ekitaldiaren fede eman zuen Udalbatzaren idazkari Víctor-Martín Amparan Álvarez jaunak. Alkate jaunaren aginduz, ekitaldiari hasiera eman zitzaion aurretik nahikoa denboraz zinegotziei banatu zaien gai ordenaren arabera, eta honako akordio proposamenak egin ziren:

En la Casa Consistorial de Busturia, siendo el día y hora indicados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde y con asistencia de los concejales arriba mencionados, se reunió la Junta de Gobierno Local, al objeto de celebrar sesión ordinaria en primera convocatoria. Dio fe del acto el Secretario de la Corporación, D. Víctor-Martín Amparan Álvarez.

De orden del Sr. Alcalde dio comienzo el acto conforme al orden del día que ha sido distribuido entre los concejales con la suficiente antelación, adoptándose los siguientes acuerdos:

1.- Aurreko saioko akta.-

Batzordeak aho batez onartu zuen 2015eko irailaren 2ko saioko akta.

1.º.- Acta de la sesión anterior.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, aprobó el acta de la sesión de 2 de septiembre de 2015.

2.- Trafikoaren arautzea Axpen.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion Foru Aldundiak ikerketa egin duela zeharkako iragazkortasuna modu seguruan areagotu ahal izateko, San Antonioko udalekuak eta hondartza lotzen dituen Busturiko zeharbidean San Bartolomeko biribilgunetik Axpeko biribilguneraino. Aipatu ikerketan, Aingerubiden oinezkoen pasabide bat egitea arrazoitzen da, baita BI-2235 errepidean zehar "uhin berdea" ezartzea ere.

Aldundiak horretarako ezarritako baldintzak hauek dira:

1.- Aldundiak honakoa egingo du:

- Beharrezko proiektu teknikoak idatzi.
- Semaforoak ezartzeko lanak egin eta zuzendu.
- Seinaleztapen horizontala eta bertikala ezarri.

2.- Udalaren ardurak honakoak izango dira:

- Oinezkoen ibilbideen obra zibila egin (daudenak egokitu), baita lursailak eta beharrezko baimenak kudeatu ere.
- Oinezkoen pasabideak dauden tokietan argiztapen-sistemak ezarri, baldin eta halako sistemarik ez balego.
- Espaloiak jarri ahal izateko drainatze-instalazioak.
- Semaforo-instalazioak energia elektrikoz hornitu.
- Badagokio, beharrezko sektore-baimenak kudeatu eta edukiontzia eta beste zerbitzu batzuk berrezarri.
- Semafoeren mantentze-lana berme-epea (haien ezarpenetik urtebetera) amaitutakoan.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen proposamena eta honako puntuak biltzen dituen ikerketa eskatzea proposatu zuen:

- a) Izpilletatik ezkerretara ateratzeko aukera (Gernikarako irteera).
- b) San Bartolomen eskatutako oinezkoen pasabidea (autobus-geltokia eta kontsultategiaren ondoan).
- c) Trafikoa baretzeko ikerketa egin Sakonetako

La Junta de Gobierno Local fue informada del estudio realizado por la Diputación Foral para permitir intensificar la permeabilidad transversal de una manera segura, en la travesía de Busturia, desde la rotonda de San Bartolomé hasta la rotonda de Axpe, que conecta con las colonias y la playa de San Antonio.

En dicho estudio se justifica la ejecución de un nuevo paso de peatones en Aingerubide, así como la implantación de una "onda verde" a lo largo de la BI-2235.

Las condiciones que propone la Diputación para su implantación son las siguientes:

1.- La Diputación Foral será quien:

- Redacte los proyectos técnicos oportunos.
- Ejecute y dirija las obras de semaforización.
- Ejecute las labores de señalización horizontal y vertical.

2.- El Ayuntamiento se responsabilizará de:

- Ejecución de la obra civil de los itinerarios peatonales (adaptación de los existentes) así como gestión de los terrenos y permisos que fuesen necesarios.
- Implantación de sistemas de iluminación en las ubicaciones de los pasos peatonales, en caso de no disponer de ella.
- Instalaciones de drenaje derivadas de la introducción de aceras.
- Suministro de energía eléctrica para las instalaciones semaforicas.
- Gestión de las autorizaciones sectoriales necesarias en su caso y reubicación de contenedores y otros servicios.
- Conservación de los semáforos, una vez finalizado el periodo de garantía, estimado en un año desde la puesta en funcionamiento.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por



tartean, San Kristobalen jarriko den biribilguneraino.

unanimidad, acordó aceptar esta propuesta y solicitar que el estudio se amplie a los siguientes puntos:

- a) Posibilidad de salida a izquierda desde Izpillueta (salida hacia Gernika).
- b) Paso de peatones a la demanda en San Bartolomé (junto a parada de bus y consultorio médico).
- c) Estudiar el calmado de tráfico en el tramo de Sakoneta, hasta la futura rotonda de San Cristóbal.

3.-San Kristobaleko argiteria publikoaren konponketa-lanen esleipena.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion Onyx ingeniaritza-enpresak txostena igorri duela Excavaciones Ibardegi S.L.-k “Lehendik dagoen Kanpoko Argiteria Kanalizatzeko eta Urbanizatzeko Egikaritze Proiektua (1. Fasea-kaxa elektrikoaren eta San Kristobaleko geralekuaren arteko tartea)” egikaritzeko aurkeztutako eskaintzaren inguruan. Txostenean ondorioztatzen da eskaintza Proiektua eta Eranskinarekin bat datorrela; hortaz, ez da ausarkeriazko beherapena aintzat hartzen eta proposatzen da esleipen-prozesuarekin jarraitzea.

Ikusita prozeduraren egoera eta kontuan izanik, aurreko txostenaren arabera, bidezkoa dela kontratua Excavaciones Ibardegi S.L. lizitatzailari esleitzea, eskaintzarik onena aurkeztu izanagatik.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen:

LEHENA.- Excavaciones Ibardegi S.L.-ri esleitzea “Lehendik dagoen Kanpoko Argiteria Kanalizatzeko eta Urbanizatzeko Egikaritze Proiektua (1. Fasea-kaxa elektrikoaren eta San Kristobaleko geralekuaren arteko tarta)” lanen kontratua, publizitaterik gabeko prozedura bidez izapideturikoa, 53.735,02 €-an, gehi Balio Erantsiaren gaineko Zergari dagozkion 11.284,35 €.

BIGARRENA.- 65.019,37 €-ko gastua xedatzea, 2015 ekitaldirako indarrean dagoen Udal Aurrekontuko 165.601.05 zenbakidun aurrekontu-partidaren kontura.

HIRUGARRENA.- Esleipendunari eskatzea bere zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak bete beharraz jakitun dela eta esleipenaren zenbatekoaren ehuneko bosteko (% 5) behin betiko bermea, BEZ gabe, eratu izana egiaztatzeko agiriak ekar ditzala, eta erabaki honen jakinarazpena jaso eta biharamunetik hasita hamabost lanegunen barruan formalizatzeko kontratu hau.

3.º.- Adjudicación de las obras de reparación del alumbrado público en San Cristóbal.-

La Junta de Gobierno Local tomó conocimiento del informe emitido por la Ingeniería Onyx sobre la oferta presentada por Excavaciones Ibardegi, S.L. para la ejecución de las obras del “Proyecto de Ejecución de Urbanización y Canalización del Alumbrado Exterior Existente (Fase 1-tramo comprendido entre el cuadro de protección y el apeadero de San Cristóbal)”. En él se llega a la conclusión de que la oferta es fiel a lo indicado en el Proyecto y Anexo por lo que se desestima una posible baja temeraria y se propone continuar con el proceso de adjudicación.

Visto el estado del procedimiento y considerando que, de acuerdo con el informe anterior, procede la adjudicación del presente contrato al licitador Excavaciones Ibardegi S.L., por haber presentado la oferta económicamente más ventajosa, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

PRIMERO.- Adjudicar a Excavaciones Ibardegi S.L., el contrato de las obras del “Proyecto de Ejecución de Urbanización y Canalización del Alumbrado Exterior Existente (Fase 1-tramo comprendido entre el cuadro de protección y el apeadero de San Cristóbal)”, tramitado mediante procedimiento negociado sin publicidad, por importe de 53.735,02 €, a los que se deben repercutir 11.284,35 € correspondientes al Impuesto sobre el Valor Añadido.

SEGUNDO.- Disponer el gasto por importe de 65.019,37 € con cargo a la aplicación presupuestaria 165.601.05 correspondiente del presupuesto en vigor de este ayuntamiento para el ejercicio 2015.

TERCERO.- Requerir al adjudicatario para que aporte documentación justificativa de hallarse al corriente en el cumplimiento de sus obligaciones tributarias y con la Seguridad Social y de haber constituido la garantía definitiva por importe del cinco por ciento (5%) del importe de adjudicación, excluido el IVA, y a que proceda a la formalización de dicho contrato en el plazo de quince días hábiles siguientes a aquél en que reciba la notificación del presente acuerdo.

4.- Hitzarmena Kosten Mugapearekin.-

Tokiko Gobernu Batzordeari jakinarazi zitzaion norbanako batzuek “Urrutia” izeneko lursailaren inguruan, Txatxarra-

4.º.- Convenio con la Demarcación de Costas.-

La Junta de Gobierno Local fue informada de que en el entorno de la finca conocida como “Urrutia”, frente a la Isla de



mendi uhartearen parean, 2001eko urriaren 25eko Ministro Aginduaren bidez onartutako mugaketaren R-20 eta M-96 puntuen artean, jabari publikoko lursail batzuk okupatu dituztela. Pertsona horiek Euskal Herriko Kosten Mugapearekin adostu dute erabilera publikoko eremua gaitzea, 70 metroko luzera eta 6 metroko zabalerakoa, itsasadarreko lursailaren mugaren ondoan. Gaikuntza horretarako, Kosten Mugapeak, bere aurrekontuaren kontura, eremu horren egokitzapen-lana egingo du, iragatea galarazten duten elementu eta eraikinak kenduta, itsasadar ondotik iragatea bermatzen duen oinezkoentzako bide txikia egokitu du eta itxitura berriz jarri du lursailetik 6 metrora.

Hori ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Euskal Herriko Kosten Mugapearekin hitzarmena sinatzea, Busturiko Udalak lehen aipaturiko eremuaren mantentze- eta kontserbazio-lanak bere gain har ditzan.

Txatxarramendi, entre los puntos R-20 y M-96 del deslinde aprobado por Orden Ministerial de 25 de octubre de 2001, unos terrenos de dominio público marítimo-terrestre venían siendo ocupados por particulares, los cuales han acordado con la Demarcación de Costas del País Vasco la habilitación de un espacio de uso público de unos 70 metros de longitud por unos 6 metros de anchura, junto al borde de la parcela con la ría. Para dicha habilitación, la Demarcación de Costas ha llevado a cabo, con cargo a sus presupuestos, la ejecución de una obra de acondicionamiento de dicha zona, con la retirada de los elementos y edificaciones que obstaculizaban el paso público, el acondicionamiento de un pequeño sendero peatonal paralelo a la ría que garantiza dicho paso público y la reposición del cierre de la parcela a 6 metros de la misma.

A la vista de ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar la firma de un convenio con la Demarcación de Costas del País Vasco para que el Ayuntamiento de Busturia se encargue de realizar las labores de mantenimiento y conservación del espacio público antes citado.

5.- Komodatu-kontratua Bilboko Gotzaindegiarekin.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onestea Bilboko Gotzaindegiarekin izenpetu beharreko komodatu-kontratua, 660 m²-ko lursail baten ingurukoa. Lursail hori Altamirako San Migel Goiaingeruaren Parrokiarena da eta Busturiko Udalak Ikastolaren jolastokiaren zati bat eta jantokia eraiki ditu bertan.

5.º.- Contrato de comodato con el Obispado de Bilbao.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar el contrato de comodato a suscribir con el Obispado de Bilbao respecto de un terreno de 660 m², propiedad de la Parroquia de San Miguel Arcángel de Altamira y sobre el que el Ayuntamiento de Busturia ha construido parte del patio de la escuela y el edificio del comedor de la escuela.

6.- Haurreskolako diru-laguntzak.-

Ikusita Haurreskolak Partzuergoak onartutako kuota-sistemaren inguruko araudi berria (familia-errenta aintzat hartzen duena eta errentaren tarte bakoitzerako kuota ezberdinak ezartzen dituen), Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Busturian erroldatuta dauden eta Seintxu haurreskolan izena ematen duten haurrentzako diru-laguntzak aldatzea, ordaindutakoaren ehuneko bat esleitzen zuen aurreko sistema erabili orde zentzuzko finko bat emateko, 52 € hilean matrikulatutako haur bakoitzeko.

6.º.- Subvenciones Haurreskola.-

Vista la nueva normativa sobre el sistema de cuotas aprobado por el Consorcio Haurreskolak (en el que se valora la renta familiar y se establecen distintas cuotas para cada tramo de renta), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó modificar las ayudas a la inscripción de menores empadronados en Busturia en la guardería Seintxu, sustituyendo el sistema anterior basado en la concesión de un porcentaje sobre la cantidad abonada, por el de abono de una cantidad fija, 52 € por mes, por cada niño matriculado.

7.- B. G. ren eta M. S. L. en idazkia.-

Ikusita B. G. k eta M. S. L. k aurkezturiko idazkia, euren Goikosolo baserriarekin mugan dagoen lursailaren egoera txarraren inguruan (abandonu-egoera eta zabal litekeen sute-arriskua), Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen aipatu lursailaren jabeari horren berri ematea, salatutakoaren inguruko iritzia eman dezan.

7.º.- Escrito de B. G. y M. S. L.-

Visto el escrito presentado por B. G. y M. S. L. sobre el estado en que se encuentra el terreno colindante con su propiedad en el caserío Goikosolo (en situación de abandono y con peligro de incendio que pudiera propagarse), la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó dar traslado al propietario del citado terreno para que manifieste su opinión sobre los hechos denunciados.



8.- Paresiko jaien likidazioa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen Paresiko jaien likidazioa, batzorde antolatzaileak aurkeztutakoa, 589,00 €-ko emaitza negatiboarekin.

8.º.- Liquidación Fiestas Paresi.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar la liquidación de las fiestas de Paresi presentadas por la comisión organizadora, con un resultado negativo de 589,00 €.

9.- Santiago eta Santa Ana jaietako herri-kirolen likidazioa.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen Harri Berri Elkartek aurkezturiko likidazioa, Santiago eta Santa Ana jaietan izandako herri-kirolei dagokiena. Udalak 3.000 €-ko diru-laguntza eman zion eta, orain, ordaintzeke dagoen % 20 (600 €) ordaindu behar du.

9.º.- Liquidación deporte rural fiestas de Santiago y Santa Ana.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aprobar la liquidación presentada por Harri Berri Elkartea de las pruebas de deporte rural celebrada durante las fiestas de Santiago y Santa Ana y para las que el Ayuntamiento concedió una subvención de 3.000 €, debiendo procederse a abonar el 20 % (600 €), pendiente de pago.

10.- Harri Berri Elkartearen idazkia San Migel jaietan idazteko antolatzeke.-

Jarraian, Harri Berri Elkartek aurkezturiko idazkiak irakurri ziren. Horietan, jakinarazten da San Migel jaiak direla-eta "Gizon Probak" antolatuko direla, eta, horretarako, laguntza ekonomikoa eskatzen diote Udalari, baita hainbat material ere.

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen eskaera eta 1.700 €-ko laguntza ematea.

10.º.- Escrito de Harri Berri Elkartea sobre "Gizon probak" de San Migel.-

Seguidamente, se dio lectura a los escritos presentados por Harri Berri Elkartea, dando cuenta de la organización, con motivo de las próximas fiestas de San Miguel, de "Gizon Probak", para lo que solicitan ayuda económica por parte del Ayuntamiento y la cesión de varios materiales.

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a su petición y conceder una subvención de 1.700 €.

11.- M. G.ren idazkia.-

Ikusita M. G.k aurkezturiko idazkia, GPS bidezko nabigazio-programek Angiz Hotelaren erabiltzaileak iturriko bidetik eramane beharrean Ludoiene bidetik eramaten dituztela salatzeke eta San Bartolomeko harrobi zaharraren sarreran argibide-seinale bat jartzeko eskatzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zituen eskaerak.

11.º.- Escrito de M. G.-

Visto el escrito presentado por M. G. planteando el problema de que los programas de navegación por GPS dirigen a los usuarios del Hotel Angiz por el camino de Ludoiene en lugar de por el camino de la fuente, y solicitando autorización para colocar una señal indicativa en la entrada de la antigua cantera de San Bartolomé, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición solicitada.

12.- "Busturia Pilota Elkartea"ren idazkia.-

U. I.ek "Busturia Pilota Elkartea"ren izenean aurkezturiko idazkia ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen "Bizkaiko gazteen VII. esku-pilota topaketa"n parte hartzea, datorren irailaren 26 eta 27an edo urriaren 3 eta 4an egingo dena, 480 €-ko laguntza ekonomikoa emanda.

12.º.- Escrito de "Busturia Pilota Elkartea".-

Visto el escrito presentado por U. I., en representación de "Busturia Pilota Elkartea", la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó participar en la organización de la "VII encuentro de pelota a mano de jóvenes de Bizkaia", que se celebrará los próximos días 26 y 27 de septiembre ó 3 y 4 de octubre, con una colaboración económica de 480 €.

13.- A. L.ren idazkia.-

Ikusita A. L.k aurkezturiko idazkia, Gorritxikaleko bideko trafikoa auzokoei baino ez muga dakien eskatzeko, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen eskaera ez onartzea. Batzordearen ustez, neurria oso mugatzailea da eta arazoa ez da hain larria, bi ibilgailu gurutza daitezkeen hain-

13.º.- Escrito de A. L.-

Visto el escrito presentado por A. L. solicitando que se limite el tráfico por el camino de Gorritxikale exclusivamente a los vecinos, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la petición por considerar que es una medida excesivamente restrictiva para un problema que no es tan grave,



bat gune baitago, eta, gainera, trafikoa ez da hain handia.

dado que existen bastantes zonas en las que se pueden cruzar dos vehículos y el tráfico no es tan intenso.

14.- J. R. P.eren idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen J. R. P.eren eskaera, 21/15 zenbakiko hirigintza-txosteneko baimenaren tasen ordainketa atzera dadin eskatzeko, baimenaren emakidan izandako atzerapenak eta Aldundiaren diru-laguntzaren atzerapenak ordaintzea galarazi baitiote.

14.º.- Escrito de J. R. P.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó acceder a la petición de J. R. P., para aplazar el pago de las tasas de la licencia del expediente urbanístico n.º 21/15, dado que el retraso en la concesión de la licencia y subvención de Diputación le impiden hacer frente a ese pago.

15.- Gernika Racing Elkartearen idazkia.-

Ikusita Gernika Racing Elkartek aurkezturiko idazkia, XXII. Gernika-Lumo Rallyaren ingurukoa, Tokiko Gobernu Batzordeak honakoa erabaki zuen aho batez:

- 1.- Proba egiteko baimena ematea; talde antolatzaileak jakinarazi beharko die herritarrei errepidea noiz ireki eta itxiko den.
- 2.- Diru-laguntzarik ez ematea.

15.º.- Escrito de Gernika Racing Elkartea.-

Visto el escrito presentado por el Gernika Racing Elkartea, sobre el XXII Rallye Gernika-Lumo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó:

- 1.º.- Autorizar la celebración de la prueba, debiendo encargarse el club organizador de comunicar a los vecinos de la zona los horarios de apertura y cierre de la carretera.
- 2.º.- Denegar la concesión de ayuda económica.

16.- Zura ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena Etoroki Koop.-i.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Etoroki Koop.-i, M. L. A. L.ren izenean (7/15 Txost.), zura ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena ematea, "Montemoro" mendiko 3. poligonoko 6. lursailean eta Mundakako 3. Poligonoko 29. lursailean, Montemoro bidea erabilita eta 295,50 estereoan, Udalarari zura ateratzen hasten den uea jakinarazi behar izanda.

16.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera de Etoroki Koop.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a Etoroki Koop. en representación de M. L. A. L. (Expte. 7/15), correspondiente al monte "Montemoro", parcela 6 del polígono 3 y parcela 29 del polígono 3 de Mundaka, utilizando el camino de Montemoro, en un número de 295,50 estéreos, debiendo comunicar al Ayuntamiento el inicio de la saca.

17.- Zura ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena Duñabeitia Forestal, S.L.-ri.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Duñabeitia Forestal, S.L.-ri M. C. E. B.ren izenean (8/15 Txost.), zura ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena ematea, "Olazarre" mendiko 12. poligonoko 50. lursailean, Errebarreneta bidea erabilita eta 1.108,50 estereoan, Udalarari zura ateratzen hasten den uea jakinarazi behar izanda.

17.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera de Duñabeitia Forestal, S.L.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a Duñabeitia Forestal, S.L. en representación de M. C. E. B. (Expte. 8/15), correspondiente al monte "Olazarre", parcela 50 del polígono 12, utilizando el camino de Errebarreneta, en un número de 1.108,50 estéreos, debiendo comunicar al Ayuntamiento el inicio de la saca.

18.- Zura ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena M. I. A. L.ri.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen M. I. A. L.ri (6/15 Txost.) zura ateratzeko landa-bideen erabilerarako baimena ematea, "Axpe" mendiko 4. poligonoko 16., 34. eta 182. lursailetan, Landaberdeko bidea erabilita eta 2.137,47 estereoan, Udalarari zura ateratzen hasten den uea jakinarazi behar izanda.

18.º.- Licencia de utilización de caminos rurales para la saca de madera de M. I. A. L.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó conceder autorización para la utilización de caminos rurales para la saca de madera a M. I. A. L. (Expte. 6/15), correspondiente al monte "Axpe", parcela 16, 34, y 182 del polígono 4, utilizando el camino de Landaberde, en un número de 2.137,47 estéreos, debiendo comunicar al Ayuntamiento el inicio de la



Halaber, azken baimen horri dagokionez, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen ez onartzea M. I. eta M. A. L. egindako eskaera, fidantza-gordailua eta tasen ordainketa soilik Axpe-Sukarrieta bideari (Errege Bidea) muga dakizkion eskatzeko, ondoko arrazoiak direla-eta:

1.- Busturiko Udal-Ordenantzak ez ditu zoru ezberdineko bideak (lurra, zabor-legar, asfaltoa, hormigoia, etab.) bereizten, ezta ibilgailu astunekin udal-bideetan zehar egiten den distantzia ere.

2.- Kasu honetan, zirkulazioa gune urbanizatutik egiten da eta udalaren espaloian eta azpiko azpiegituretan kalteak eragin daitezke.

saca.

Asimismo en relación a esta última licencia, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la petición realizada por M. I. y M. A. L., para que se limite el depósito de fianza y el pago de tasas, únicamente al camino Axpe-Sukarrieta (Camino Real), en base a los siguientes motivos:

1.º.- La Ordenanza Municipal de Busturia no distingue entre caminos de distinto firme (tierra, todo-uno, asfalto, hormigón etc.) ni la distancia que se recorra a lo largo del camino municipal con vehículos pesados.

2.º.- En el presente caso la circulación discurre por una zona urbanizada en la que se pueden causar desperfectos importantes a la acera municipal y a las infraestructuras situadas bajo la misma.

19.- G. P. A.ren ibilgailuaren zergaren salbuespena.-

G. P. A.k BI-0979-AL matrikuladun bere ibilgailuak, 25 urte baino gehiagoko antzinatasuna duen heinean, 2016. urtean eta hurrengoetan Trakzio Mekanikoko Ibilgailuen gaineko Zergan salbuespena izan dezan eskatzeko aurkeztutako idazkia ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez onartu zuen eskaera, Zerga arautzen duen Udal Ordenantza Fiskalaren laugarren kapituluan ezarritakoaren arabera.

19.º.- Exención del impuesto del vehículo de G. P. A.-

Dada cuenta del escrito presentado por G. P. A., por el que solicita la exención, para el año 2016 y sucesivos, del Impuesto sobre Vehículos de Tracción Mecánica, del turismo de su propiedad, matrícula BI-0979-AL, por ser un vehículo con una antigüedad mínima de 25 años desde la fecha de su fabricación, en aplicación de lo dispuesto en el artículo cuarto de la Ordenanza Fiscal municipal reguladora del Impuesto, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar la solicitud presentada.

20.- Hirigintza-baimenak.-

Tokiko Gobernu Batzordeak, igorritako txosten juridiko eta teknikoak ikusita, aho batez erabaki zuen honako hirigintza-baimenak ematea, bertan ezarritako baldintzetan, horiek eskatzaileari jakinarazi behar izanda:

1.- M. J. R. A. (29/2015 Txost.), Axpe auzoko 89.eko baserriaren inguruko lurren maila beheratzeko, zoladura jartzeko eta ixteko, 11.308,89 €-ko aurrekontuarekin.

2.- C. I. G. (30/2015 Txost.), San Bartolome auzoko 44.eko hormigoizko hesia berreraikitze eta itxituraren 3 metroko zati bat konpontzeko, 2.415,00 €-ko aurrekontuarekin.

3.- J. A. A. L. (31/15 Txost.), San Kristobal auzoko 44.ean fatxada eta teilatu-hegalak margotzeko, leihoak barne, i 6.190,80 €-ko aurrekontuarekin.

4.- J. D. A. (32/15 Txost.), San Kristobal auzoko 28-3. ezkerrean bi leiho aldatzeko, 1.205,00 €-ko aurrekontuarekin.

Halaber, Batzordeak aho batez erabaki zuen Altamira auzoko 67.eko "Toki Alai Bide Barri" eraikinean ezarritako pergolaren legezkatzea ukatzea, K. F. G.k eskatua, eraikuntzak ez baitu betetzen udal-araudia, Arau Subsidiarioen 228. artikuluan xedatutako lerrokadura-parametroak, hain zuzen ere.

20.º.- Licencias urbanísticas.-

La Junta de Gobierno Local, vistos los informes jurídicos y técnicos emitidos, acordó, por unanimidad, conceder las siguientes licencias urbanísticas, que quedan sometidas al cumplimiento de las condiciones establecidas en el mismo, de cuyo contenido se deberá dar traslado al solicitante:

1.º.- M. J. R. A. (Expte. 29/2015), para rebaje de tierras en torno al caserío, pavimentado y cierre en el barrio de Axpe, n.º 89, con un presupuesto de 11.308,89 €.

2.º.- C. I. G. (Expte. 30/2015), para reconstrucción de 19 metros de valla de hormigón y 3 m de parte del cierre en el barrio de San Bartolomé, n.º 44, con un presupuesto de 2.415,00 €.

3.º.- J. A. A. L. (Expte. 31/15), para pintar fachada y aleros incluido ventanas, en el barrio de San Cristóbal, 44, con un presupuesto de 6.190,80 €.

4.º.- J. D. A. (Expte. 32/15), para cambio de dos ventanas, en el barrio de San Cristóbal, n.º 28-3.º Izda., con un presupuesto de 1.205,00 €.

Asimismo, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó denegar la legalización de la estructura de pérgola instalada en el edificio "Toki Alai Bide abri", del barrio de Altamira n.º 67, solicitada por K. F. G., dado que se considera que el acto constructivo no cumple con la normativa municipal, ya que no cumple con los parámetros de alineaciones



definidos en el artículo 228 de las Normas Subsidiarias.

21.- O. A. S. e I. Z. L.ren berraztertzeo errekurtsua.-

Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen onartzea 2015eko maiatzaren 20an Axpe auzoko 12. F-ko terraza ixteko baimena ukatu zuen erabakiaren aurka O. A. S.k eta I. Z. L.k jarritako berraztertzeo errekurtsua, horrekin batera jabeen erkidegoaren erabakiaren kopia aurkeztu baita eta hori izan baitzen burututako itxitura legeztatzeo eskaera onartu ez izanaren arrazoia.

21.º.- Recurso de reposición de O. A. S. e I. Z. L.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó aceptar el recurso de reposición interpuesto por O. A. S. e I. Z. L., contra el acuerdo municipal de 20 de mayo de 2015, por el que se le denegaba la licencia para cierre de terraza en Axpe, 12 F, ya que junto con el Recurso se aporta copia del acuerdo de la comunidad de propietarios, cuya ausencia fue el motivo por el que se le rechazó la solicitud de legalización del cierre realizado, y en consecuencia, acordó conceder la licencia solicitada.

22.- J. A. I. M.ren idazkia.-

Tokiko Gobernu Batzordeari J. A. I. M.k, Udal honetako langileak, aurkezturiko idazkiaren berri eman zitzaion. Idazkian, erretiro partziala hartzeko nahia adierazten du, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorrean ezarritakoaren arabera eta % 75eko lanaldiaren murrizketarekin, 27/2011 Legearen 12.2. azken xedapena aplikagarria zaiolarik. Halaber, eskaera egiten du Busturiko Udalak errelebo-kontratua izapidetzeko, lanaldi partzialeko erretiroa onar dakion.

Hori guztia ikusita, Tokiko Gobernu Batzordeak aho batez erabaki zuen Udal Idazkariari eskaera egitea lan-poltsa bat sortzeko, oinarriak idatz ditzan, I. jauna erretiro partzialean egon bitartean bera ordezkaturiko duen pertsona bat hautatzeko.

22.º.- Escrito de J. A. I. M.-

La Junta de Gobierno Local fue informada del escrito presentado por J. A. I. M., peón de este Ayuntamiento, en el que manifiesta su voluntad de acogerse a la jubilación parcial al amparo de lo establecido en la Ley General de la Seguridad Social con una reducción de la jornada de trabajo del 75%, por ser aplicable a su caso la disposición final 12.2 de la Ley 27/2011, y solicita que el Ayuntamiento de Busturia proceda a tramitar el contrato de relevo necesario para que le sea aceptada la jubilación a tiempo parcial.

A la vista de todo ello, la Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó encargar al Secretario Municipal la redacción de unas bases para la creación de una bolsa de trabajo con la finalidad de seleccionar la persona que sustituya al Sr. I. durante su periodo de jubilación parcial.

23.- Hirugarren adinekoek bazkaria.-

Tokiko Gobernu Batzordeak ahobatez erabaki zuen hirugarren adinekoen bazkariaren % 50 finantzatzea (15 € mahaikideko).

Eta besterik gabe, Alkate jaunak amaitutzat eman zuen saioa, eta adostutakoaren inguruan akta hau idatzi zen, Alkate jaunak eta egiaztatzen dudana Idazkariak sinatuta.

23.º.- Comida de la tercera edad.-

La Junta de Gobierno Local, por unanimidad, acordó financiar el 50% de la comida de la tercera edad (15 euros por comensal).

Y no habiendo más asuntos que tratar, el Sr. Alcalde dio por terminado el acto y de lo acordado se extendió la presente acta que firman, el Sr. Alcalde y el Secretario que certifico.

Alkatea/El Alcalde,

Fdo: Aitor Aretxaga Telletxea

Idazkaria/El Secretario,

Fdo.: Víctor-Martín Amparan Álvarez